


# Askatasun Egunak emango die gaur hasiera Legazpiko Santikutz festei

**Legazpi** » Jaien egitarauaren barnean bosgarren Kantu Afaria egingo da gaur gaueko 21:00etan Gernika plazan.

ALEX AREIZAGA

Gaurko Askatasun Egunarekin emango zaie hasiera aurtengo Agorreko Santikutz jaiei, Legazpin. Asteburu osoan zehar herriko kaleetan jai giroa zabalduko da, eta herritarrek hainbat ekimenez gozatzeko aukera izango dute. Gaur gauean, esaterako, kantu afaria egingo dute 21:00etan Doinua musika eskolaren eskutik Gernika plazan. Eguraldiak lagundu ezean azokan egingo da festa. Bihar arratsaldean minimotoen lasterketa eta Atletismoko IX. Hiri Milia lasterketa jokatuko dira, baita dantza jaialdia ere Korosti dantza taldeak antolatuta. Igandean, azkenik, Lakiolan erromeria izango da egun osoan zehar, euskararen alde.



lazko Agorreko Santikutzetan Gastronomía Lehiaketaren XXV. aldian ospatu zen. IDOIA LUZURIAGA

## Aritz Lasak bikotekako partida jokatu du gaur gauean Ederrenan

**Urretxu** » Profesional mailako bi partida izango dira gaur gaueko 22:30etik aurrera, hiru pilotari goierritarrekin.

A. AREIZAGA

Urretxuko Santa Anastasia jaien atarian, Urretxuko Udalak eta Frontisek pilota partidak jarri dituzte gaurko Urretxuko Ederrena frontoian. Bi partida izango dira: Bengoetxea VII.a-Huarte, Urdaniz-Mitxelena bat, eta Antxia-Gorriti Lasa-Garmendia bestea. 22:30ean hasiko da jaialdia. Sarreak pilotalekuan daude salgai, 10 euroan. Aritz Lasa urretxuarrak, Unai Garmendia legorretarra, eta Iker Huarte lazkaotarra ikusteko aukera izango da gaur Urretxun.

## Milkshake eta Raid X taldeak gaur Urretxu-Zumarragako gaztetxean

A. AREIZAGA

Urretxu-Zumarragako Gazte Asanbladak metal kontzertuak antolatu ditu gaur gaueko gaztetxean. Bi talde ariko dira: Milkshake ordiziarrak eta Raid X. Kontzertuak 23:00etan hasiko dira, eta sarrera doan izango da.

### Kaleak moztuta

Jaietan ospatuko diren lasterketak tarteko, kale ugari moztuko dituzte bihar Legazpin. Ondoko kaleetan debekatua egongo da aparkatzea 12:00etatik 20:00etara: Plazaola (27 parean), Kale Nagusia (2-15), P. Etxeberria (3-6) eta Santikutz (2-6). Aparkalekua errazteko ordu horietan lur azpiko aparkalekua (TAOduna) dohainik izango da; Haztegi ikastolako aurreko patioan ere utziko ahalko da.

Era berean, larunbatean ezin izango da kale horietan zirkulatu 14:30etik aurrera.

### » SANTIKUTZ JAIAK

Askatasun Egunarekin hasiko dira Legazpiko Santikutzak, gaur.

#### Gaur

- 12:00. Agintariei harrera dantzarekin, udaletxe aurrean.
- 13:15. 'Legazpi: 1608-2008' erakusketaren irekiera ekitaldia.
- 19:00. Erraldoi eta buruhandi konpartsaren kalejira, Urolatarrak txarangarekin.
- 21:00. Kantu afaria, Gernika plaza.
- 23:00. Dantzaldia Musika Ban-

darekin, Euskal Herria plazan.

- 19:00. Erraldoi eta buruhandi konpartsaren kalejira.

#### Bihar

- 11:30. Haur eta gaztetxoentzako jolas parkea Euskal Herria plazan.
- 17:00. XXVI. Sukaldari lehiaketa Euskal Herria plazan.
- 17:00. Minimotoen lasterketa.
- 18:00. IX. Hiri Milia lasterketa.
- 19:30. Dantza jaialdia, Euskal Herria plazan.
- 22:00. Donostiako Barroko Tal-

dearen kontzertua.

- 23:30. Dantzaldia Jo ta Hanka taldearekin, Euskal Herria plazan.

#### Etzi

- 09:45. Gurutzera igoera.
- 11:00. Meza nagusia Korostiaga mendian.
- 13:00. Lakiolako erromeriaren hasiera.
- 16:00. Herri mailako plater tiraketa.
- 19:00. Erromeriaren amaiera eta herrira itzulera.

## Zortzi film labur ikusteko aukera izango da Labeagan gaur

**Urretxu** » Laburmetraien Gaua izendatu du gaur gaueko emanaldia Butak 21 zine-kluba, zortzi film ikusi ahalko dira Labeagan.

A. AREIZAGA

Zortzi film labur eskainiko ditu guztira gaur gauean Urretxuko Labeaga aretoan Butak 21 zine-klubak. Emanaldia 22:30ean hasiko da, eta sarrera doan da.

*Limoncello* (Jorge Dorado, Luis A. Berdejo, Borja Kobeaga, 2007), *Topeka* (Asier Altuna, 2002), *Taxi?* (Telmo Esnal, 2007), *Basurdea* (Ane Muñoz, 2002), *Un día de es-*

*tos* (Pepe Requejo, 2008), *No es buena idea* (Ugo Sanz, 2007), *...Ya no puede caminar* (Luis Berdejo, 2001) eta *Las Horas Muertas* (Haritz Zubillaga, 2007) izango dira emanaldian ikusi ahal izango diren filmak.

#### Herriko film laburrak

Laburmetraien Gaua antolterako orduan urtero herriko edo inguruko film laburrak eskaintzen saiatzen da zine-kluba. Aurten, hala ere, Pepe Requejo urretxuarraren filma izango da bertako ordezkari bakarra. Pelikula horretan Rakei Panizo, Laura Paredes eta Gorka Zufiaurre herritarrek hartzen dute parte, besteak beste.

## Laburrak

### Puzgarriak izango dira Urretxuko udal igerilekuan

**URRETXU** » Urretxuko udal igerilekuan jai giro alai eman nahi diote amaiera udako denboraldiari. Horretarako haurrek hain gustuko dituzten puzgarriak jarriko dituzte bihar egun osoan zehar.

### Bertso afaria izango da Motx tabernan gauean

**URRETXU** » Sustrai Colina eta Jon Martin izango dira gaur gauean Motxen kantari 21:30etik aurrera.

### Erreka Egunerako izena emateko epea zabalik da

**LEGAZPI** » Irailaren 15a arte egongo da aukera Legazpiko Erreka Egunean izena emateko epea. Agenda 21eko herritarren forotik sortutako ekintza hori hilaren 20an burutuko da, 11:00etatik 13:00etara. Ondoren hamarretakoa egingo dute. Azken lau urteetan ehundik gora pertsonak parte hartu izan dute urtero. Iaz Urola, Urtatza, Aztonaga eta Barrendiolako erreka garbitzen aritu ziren, eta denera 1.340 kilo hondakin bildu zituzten.

### Jaiak direla-eta Gazte Txokoa itxita egongo da

**LEGAZPI** » Irailaren 2an ateak ireki eta azken egunetan *Lagunarteko hizkerarekin jolasean* programan murgildurik ibili ostean, Agorreko Santikutz jaietarako prestatutako festa egitarauarekin bat egingo du Legazpiko Gazte Txokoa, eta itxita egongo da bihar eta etzi. Era berean, 12 eta 16 urte bitarteko legazpiar guztiek bazkide txartela urriaren 7a baino lehen berri beharko dutela gogorarazi dute Gazte Txokoko arduradunek.

**ERROMERIA LEGAZPIN!**  
Irailaren 14an, Igandea, Lakiolan, 12:00etatik aurrera.  
Koadriren arteko apustu latza, bertsolariak, jokoak eta erromeria bikaina Elustondo anai-arrebekin!  
Autobusa, bazkaria eta taberna.  
Euskarazko Zingizango webgunearen alde.  
**Anima zaituz!**  
Euria eginez gero, Urbeltz pilotalekuan egingo da.